

Auditx Akularrerako alternatiba

Altza XXI plataformak, sortu zenetik hona, egindako lanaren berri eman du Casares kultur etxean. Gainera, plataformako kideek jakinarazi dutenez, datozen hilabeteetan Auditx Akularren parkea egiteko proiektua landuko dute.

Sara Soria

Udalak Auditx Akularren 3.000 etxebizitza inguru egiteko proiektua aurkeztu zuen 2000ko udan. Handik gutxira, Udalaren asmoarekin bat ez zetorren Altza XXI plataforma sortu zen, eta 250tik gora helegite aurkeztu zituen Auditx Akularreko proiektuaren aurka. Agustin Rodriguez plataformako kideak Casaresen egindako batzarrean gogorarazi zuenez, "helegiteek ez zuten harrera ona izan Udalean. Babes ofizialeko etxebizitzaren aurka joatea eta gazte donostiarrei etxebizitzetan sarbidea oztopatzea leporatu ziguten. Horrek etxebizitzaren auzian sakontzera eta datuak hobeto aztertzerantz eraman gintuen. Gaian sakontzean, oso datu deigarriak topatu ditugu".

Rodriguezek azaldu zuenez,

Plan Orokorrean aurrikusitako 8.680 etxebizitza -horietatik 3.727 babes ofizialekoak- erai-ki gabe daude oraindik. Bestalde, plataformako kideak esandakoaren arabera, "Udalan ez dute hutsik dauden etxebizitzaren auzian ezer egiteko asmorik. Altzan 800 etxebizitza daude hutsik, eta IKEI aholkularitza enpresak egindako ikerketaren arabera, etxebizitza behar duten gazte altzatarak 586 dira".

Parkea etxebizitzaren ordez

Altza XXI plataformako kideen hitzetan, "Auditx Akular ez da etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko aukera bakarra. Guk jendez gainezka diren Altza eta Pasaiaren arteko Auditx Akular parkea izatea proposatu nahi dugu". Plataformakoek egitasmoari Aisia eta Osasun Parkea jarri diote izena.

Maribi Juaristi plataformako kideak esandakoaren arabera, "Auditx Akular babesteko bide bakarra gure proiektua maizteko udal hauteskundeak baino lehen aurkezte da. Izan ere, hauteskundeak baino lehen alderdi politikoek jarrera abegikorra izan ohi dute".

Plataformako kideek aurre-

ratu digutenez, hilabete eta erdiren buruan parkearen proiektua landuko dute. "Egitasmoa jorrazteko, talde, elkartea eta auzotar guztien parte hartzea beharrezkoa dugu. Behin proiektua landuta, alderdi guztiei aurkeztuko diegu, gure proposamenari buruz zein jarrera duten ikusteko eta parkearen aldeko konpromisoak hartzeko prest ote dauden jakiteko. Maiztetik aurrera izango dugun alkateak Auditx Akularri buruzko konpromiso batzuk hartzea nahiko genuke", argitu digu Maribik.



LEHIAKETAK

Hamar sarrera ditugu Gotan Tango taldearen "De recuerdos y tango" dantza eta musika ikuskizunerako. Emanaldia martxoaren 1ean, larunbata, izango da Antzoki Zaharrean, 20.00etan.

Astelehenean, hilak 24, 10.00etatik aurrera 943467181 telefono zenbakira hots egiten duten lehen bost lagunek bina sarrera lortuko dituzte.

Joan den asteko irabazleak: Joseba Zubimendiren "Bertso minez" liburua

Leire Beloki
Iñaki Imaz
Loli Pauliz
Arantza Pikasari
Daniel Larre

Asier Olasagasti
Itziar Teleria
Lourdes Garcia
Iker Martinez
Mari Carmen Fernandez